

Hegazti-gripea: Europako egoeraren eguneraketa

Frantziako Nekazaritza Ministerioak ohar bat argitaratu du duela gutxi, eta horren bidez jakinarazi du oso patogenoa den hegazti-gripearen 61 foku detektatu direla, nagusiki eskortako hegaztien abeltegietan. Horietatik 48 Landetan daude.

Europako beste zenbait herrialde bezala, Frantzia oso patogenoa den hegazti-gripeari aurre egiten ari da azaroaren erdialdetik. Egoera epidemiologikoa okerrera egiten ari da herrialde osoan, baina batez ere Landetan. Bertan, Frantziako hegazti-gripearentzako erreferentziatzko laborategi nazionalak (ANSES) oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripearen foku bat baieztatu zuen gizentzeko [6.000 ahate zituen Landetako ustiategi batean](#).

Abenduaren 17an, Frantzia osoa arrisku-maila altuan sartu zen, eta frantziar agintariek babes-neurri hauek hartu zituzten, gaixotasuna zabaltzea saihesteko:

- kaltetutako hegaztiak hiltzea
- ustiategiak garbitzea eta desinfektatzea
- babes-guneetan eskortako hegaztien mugimendua debekatzea
- fokuen inguruak zaintzea
- biosegurtasun-neurri indartuak hartzea abeltegietan eta animaliak garraiatzean

Landetan kasuek oso azkar egin dutenez gora, eta ANSESen gomendioei jarraituz, Frantziako Gobernuak **prebentziozko hilketak ere** ari da egiten. Hilketa horiek 1 km-ko erradioan ari dira egiten kaltetuak izan daitezkeen espezieak dituzten ustiategietan, eta, palmipedo guztien eta konfinatuta ez dauden eskortako beste hegazti-espezie batzuen kasuan, 3 km-ko erradioan.

Halaber, MAPAk beste **informazio-ohar bat argitaratu du** bere webgunean, eta, bertan, ADNSri jakinarazitako **fokuen datuak ere eguneratu ditu**. Joan den **abenduaren 9tik gaur arte**, IAAPen **246 foku** jakinarazi dira guztira, gehienbat **H5N8** azpimotakoak, honako banaketa honekin:

Mihi urdinaren gaitzetik babesteko neurri espezifiko berriak

[MAPAk joan den abenduaren 21ean argitaratu zuen PA/1251/2020 Agindu berria](#), zeinaren bidez mihi urdinaren gaitzetik babesteko neurri espezifiko berriak ezartzen dituen.

Aintzat hartuta Euskal Autonomia Erkidegoan, Aragoi eta Nafarroan 8 serotipoaren zirkulazioa detektatu ondorengo egoera epidemiologiko berria eta horren ondorioz ezarritako kontrol-neurriak, MAPAk honako ezarri du agindu berri honetan:

- 1, 4, eta 8 serotipoen aurrean, eremu mugatuak eta eremu horietan derrigorrezko txertaketa ezartzea: **8 serotipoaren aurrean, eremu mugatu berria eta derrigorrezko txertaketa**

ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoan, Aragoian eta Nafarroan.

- Borondatezko txertaketa ezarriko da **arisku handikotzat** jotzen diren gaixotasunik gabeko eremuetan. Eremu horiek aldatu egin ahalko dira kokapen geografikoaren, faktore ekologiko eta meteorologikoen, eta **bektorearen presentziaren eta banaketaren arabera.**
- 2021eko martxoaren 31ra arteko aldi baterako epea, mugaketa-eremu berrietan animaliak mugitzeko, immunizaziorako behar adina denbora emate aldera.
- Txertaketa albaitari baimenduek egingo dute, eta agintari eskudunek kontrolak ezarriko dituzte, kanpaina behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko.

Hegazti-gripea: oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripearen foku bat baieztatu da ahateetan, Landetan

Frantziako Hegazti Gripearen Erreferentziazko Laborategi Nazionalak (ANSES) baieztatu egin du oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripearen foku bat antzeman dutela Landetan, gizentzeko 6.000 ahateko ustiategi batean.

MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripeak Frantziako hegoaldeko ahate-haztegi horretan antzemandako fokuen baieztapenari buruz. Haztegi horretan, abenduaren 5ean heriotza-tasa handia izan ondoren, ANSESen berretsi egin zen eta Europako araudian oinarritutako zuhurtasun-neurriak hartu ziren, alegia: abenduaren 6an 6.000 hegaztiak hil ziren, eta fokuen inguruan 3 kilometroko babes-eremua eta 10 km-ko zaintza-eremua ezarri ziren.

Foku hori baieztatu ostean, aste horretan oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripearen hiru foku antzeman dira guztira Frantzian; izan ere, beste 2 foku jakinarazi ziren aste horretan bertan: Loira-Atlantikoa departamentuko hezegune batean hilik aurkitutako antzara bat eta Meurthe-et-Moselle departamentuko 3 zisne.

Urriaren 20az geroztik, guztira oso patogenoa den hegazti-gripearen 569 foku baieztatu dira Europan, gehienak H5N8:

- 11 foku hegazti gatibuetan
- 47 foku etxeko hegaztietan
- 511 foku hegazti basatietan

[Orain dela gutxi argitaratutako ohar batean](#), MAPAk jakinarazi zuen oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripearen foku bat antzeman zela Nojan (Kantabria) hiltzerian zegoen belatz handi batean. Egun batzuen ostean, [beste informazio-ohar bat](#) argitaratu zuen. Bertan **adierazten zen hegazti-gripearen zirkulazioaren arriskua handia-ertaina dela, Europako iparraldean eta erdialdean gaixotasun horrek duela gutxi izan duen bilakaera dela eta; hortaz, hainbat zaintza- eta kontrol-neurri ezarri ziren**, [APA/2442/2006](#) Aginduaren II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

Osasun publikoari dagokionez, gogorarazi behar da ez dela arriskutzat hartzen; izan ere,

- **andui hori EZ da zoonotikoa; hortaz, ez dio gizakiari eragiten.**
 - **ez da transmititzen ez hegazti-haragiaren, ez arrautzen kontsumoaren bidez.**
-

Hegazti-gripea: oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripean positiboa eman du hegazti basati batek Kantabrian

Algeteko Albaitaritza Laborategi Zentralak jakinarazi du oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripearen birusa hauteman dutela belatz handi batean, Kantabrian.

MAPAk ohar bat argitaratu du, eta horren bidez jakinarazi du hilzorian zegoen hegazti basati bat aurkitu dutela Noja udalerrian (Kantabria), Santoña, Victoria eta Joyeleko Paduretako parke naturaletik hurbil. Handik fauna basatia sendatzeko zentro batera eramán zuten, eta, bertan, hil egin behar izan zuten.

Duela gutxi [beste informazio-ohar bat](#) argitaratu zen. Bertan adierazten zen hegazti-gripearen zirkulazioaren arriskua handia-ertaina dela Espainian, Europako iparraldean eta erdialdean gaixotasun horrek duela gutxi izan duen bilakaera dela eta; hortaz, hainbat zaintza- eta kontrol-neurri ezarri ziren. **Hegazti-gripearen Programa Nazionaleko zaintza pasiboa indartzeari esker aurkitu dute hegazti hori.**

Urriaren 20az geroztik, oso patogenoa den hegazti-gripearen 470 foku egiaztatu dira Europan. Horietatik 441 H5N8 azpimotakoak dira. Hegazti hauetan antzeman dira foku horiek:

- 31 foku etxeke hegaztietan
- 7 foku hegazti gatibuetan
- 403 foku hegazti basatietan.

Osasun publikoari dagokionez, ez da arriskutzat hartzen; izan ere,

- **andua hori EZ da zoonotikoa; hortaz, ez dio gizakiari eragiten.**
 - **Ez da transmititzen ez hegazti-haragiaren, ez arrautzen kontsumoaren bidez.**
-

Eguneratzea: Hegazti-Gripea azkar zabaltzen ari da Europan

EFSAk txosten zientifiko bat argitaratu berri du, eta bertan ohartarazi du hegazti-gripea azkar zabaltzen ari dela Europan. Horrez gain, jakinarazi du oso arriskutsua dela gaixotasuna lehenago detektatu ez den herrialdeetan sartzea.

Europako zenbait herrialdek oso patogenoa den hegazti-gripearen 300 agerraldi baino gehiago jakinarazi dituzte 2020ko urriaren 16tik. Herrialde horiek dira, besteak beste, Belgika, Danimarka, Frantzia, Alemania, Irlanda, Herbehereak, Suedia eta Erresuma Batua.

Foku horien eraginpeko hegazti gehienak basatiak dira, baina, ECDCk eta hegazti-gripearen Europako erreferentziako laborategiak egindako txosten berri honen arabera, probabilitate handia dago birusa hegazti basatietatik eskortako hegaztietara igarotzeko.

Agentziak [duela gutxi](#) ohartarazi zuen arriskua zegoela oso patogenoa den hegazti-gripea mendebaldeko Europara zabaltzeko, udan baieztatutako agerraldiak egon baitziren ekialdeko Errusian eta Kazakhstanen, hegazti basatien eta etxeko hegaztien artean. Izan ere, eskualde hori Europara datozen uretako hegazti basatiek egiten duten udazkeneko migrazio-bidean dago.

Gogorarazi behar dugu oraingoz ez dela **gizakien artean kasurik detektatu agerraldi berrietan, eta gaixotasuna jendeari oro har transmititzeko arriskuak oso txikia izaten jarraitzen duela.**

Egon daitekeen arriskua aintzat hartuta, beharrezkoa da birusen bilakaera kontrolatzea, osasun publikorako edo animalien osasunerako propietate esanguratsuak dituzten birus berriak edo mutazio genetikoak agertzeko etengabeko arriskua ebaluatzeko.

Hori dela eta, EFSAk hau eskatzen die gaixotasunaren eraginpean egon daitezkeen herrialdeetako agintaritzak nazionalak:

- Hegazti basatiak eta eskortako hegaztiak zaintzen jarraitzeko.
- Gizakiak infektatutako edo hildako hegaztiekin kontaktuan egotea saihesteko kontrol-neurriak ezartzeko.
- Arrisku handiko eremuetan arriskuak murrizteko eta biosegurtasuna indartzeko neurriak ezartzeko.

Foku bat baieztatu da gugandik gertu, Frantzian (Korsika). Horren ondorioz, eta kontuan hartuta hegazti basatien migrazio-bideak gure lurraldetik igarotzen direla, beharrezkotzat jo da **zenbait neurri espezifiko** hartzea EAEko udalerrri batzuetan, [duela gutxi](#) jakinarazi zen moduan.

2019ko EETen zaintzari buruzko txosten zientifikoa

EFSA erakundeak duela gutxi argitaratu du 2019ko EETen zaintzaren emaitzak biltzen dituen txosten bat, behiekin, ardiekin, ahuntzekin, zerbidoekin eta beste espezie batzuekin lotuta; horrez gain, ardien genotipifikazioa ere jorratzen du.

2020ko urriaren 28an BEEren eta EETen azterketaz arduratzen den sare zientifikoa [urteko txosten teknikoa](#) argitaratu ondoren, EFSAk 2019ari dagokion txosten zientifikoa argitaratu du, zeinetan zoonosi horren zaintza-programaren emaitzak ebaluatzen dituen, 28 estatu kideak aintzat hartuta.

Hauek izan ziren emaitzak espeziearen arabera:

Behiak:

- **Arriskuko animalia-taldea:** 1 milioi buru baino gehiago aztertu ziren (% 2,7ko beherakada 2018arekin alderatuta), honako hauek osatuta:
 - premiaz hildako animaliak.
 - *ante mortem* ikuskapenean zantzu klinikoak zituzten animaliak.
 - ustiapenean hildako animaliak; arrisku-taldeko behi guztien % 92,4 izan ziren
- **Ikuspuntu epidemiologikotik, hauek dira alderdi nabarmenenak:**
 - H motako BEE atipikoaren kasuen kopurua urte batean jakinarazitako handiena izan zen (2001 eta 2008 artean jaiotako animaliak).
 - H motako BEE atipikoaren 5,5 urteko kasu bat egon zen Espainian; inoiz jakinarazitako BEE kasurik gazteena, EETen datuak bildu eta argitaratzen direnetik.

Hausnarkari txikiak:

- 338.098 ardi eta 143.529 ahuntz aztertu ziren: % 3,9ko igoera bi espezieetan, 2018arekin alderatuta.
- **Scrapie klasikoa hauteman zen nagusiki:** bai ardietan (baieztatutako 997 *scrapie* kasuetatik 911), bai ahuntzetan (baieztatutako 390 kasuetatik 379).
- **Ardietako zorizko genotipifikazioa** 8 estatu kidek soilik egin zuten, eta % **4ko jaitiera** egon zen 2019arekin alderatuta.

Zerbidoak

CWDaren (oreinaren gaixotasun kakektizatzailea) **kontrolerako zaintza-programa** sei estatu kidetan aplikatu zen (Estonia, Finlandia, Letonia, Lituania, Polonia eta Suedia), eta 7.980 zerbido aztertu ondoren **hiru CWD kasu** baieztatu zituzten Suediako **altze basatietan**. Beste zazpi estatu kidek 2.732 zerbido aztertu zituzten, baina ez zuten emaitza positiborik jaso.

Europar oso patogenoa den H5N8 Hegazti-Gripearen egoeraren eguneratzea

MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du, eta bertan, Frantzia, Belgika eta Suedian oso patogenoa den hegazti-gripearen lehenengo kasuak antzeman direla adierazi du. MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du, eta bertan, Frantzia, Belgika eta Suedian oso patogenoa den hegazti-gripearen lehenengo kasuak antzeman direla adierazi du.

Europar hegazti-gripearen agerraldi berrien egoerari buruz [2020/11/06an argitaratutako eguneratzearen ondoren](#), MAPAk **beste ohar bat** argitaratu zuen 2020/11/17an. Ohar horretan eguneratu egin du gaixotasun horren egoera eta **agerraldi guztiak bildu ditu, Frantzia, Belgika eta Suedian izandako lehen kasuekin batera.**

ADNS erakundeak **oso patogenoa den (IAAP) hegazti-gripearen** fokuen **268 jakinarazpen** jaso ditu udazken honetan, **2020/10/17an** Holandan beltzarga mutu baten lehen kasua baieztatu zenetik. Besteak beste:

- 211 Alemanian
- 38 Herbehereetan
- 8 Danimarkan
- 5 Erresuma Batuan
- 5 Belgikan
- 1 Irlandan

H5N8 azpimota da gehien antzematen den (252 foku) oso patogenoa den hegazti-gripearen birusa, eta EURLren arabera, uztailean Errusian eta Kazakhstanen antzeman zen berbera da, baina 2020ko lehen erdian EBn zirkulatu zuenaren bestelakoa.

Jakinarazitako foku guztien artetik, hau azpimarratu behar da:

- 255 foku hegazti basatietan jakinarazi dira
- 12 foku kortako hegaztietan
- 1 foku hegazti gatibuetan.

Frantziako agintariek gaur jakinaraziko dute oso patogenoa den hegazti-gripearen lehen fokua Korsikan hegazti gatibuetan, baina **dagoeneko adierazi dute zein neurri** hartuko dituzten arrisku-eremuetan gaixotasun horri aurre egiteko; hain zuzen, hauek izango dira:

- Kortako hegaztiak konfinatzea.
- Hegaztien pilaketa debekatzea.
- Ehiza-hegaztiak garraiatzea eta askatzea debekatzea.
- Ehizatzekeo apeuak erabiltzea debekatzea.

Frantziako fokuauren hurbiltasunak eta hegazti basatiek gure lurraldean dituzten migrazio-ibilbideek handitu egiten dute arriskua maila handi/ertainera, MAPAk 2020/11/11n adierazi zuen moduan.

Horren ondorioz, **hainbat neurri zehatz hartu behar izan dira APA 2442/2006 Aginduaren II. eta III. eranskinetan jasotako udalerrietan, eta agindu horretan jasotako hainbat udalerriri eragiten diete Euskadin.**

Udalerrri horietan, datozen asteotan aplikatuko dira neurri horiek. Autonomia mailan, **Arabakoak dira** agindu horretako II. eta III; eranskinetan **arrisku bereziko** eremu gisa sartu diren **udalerrriak**. Hauek dira:

- **Arratzua-Ubarrundia**
- **Barrundia**
- **Elburgo/Burgelu**
- **Legutio**
- **Zigoitia**

Jakinarazpena: Espainian hegazti-gripearen

arrisku handia/ertaina

MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du, eta, bertan, jakinarazi du hegazti-gripearen zirkulazioaren arriskua handia/ertaina dela, Europan gaur egun gaixotasun horrek duen egoera aintzat hartuta; hortaz, hainbat zaintza- eta kontrol-neurri ezarri ditu. Euskadin, gaixotasun hori sartzeko arrisku bereziko eremu hauek ezarri dira: Arratzua-Ubarrundia, Barrundia, Elburgo/Burgelu, Legutio eta Zigoitia.

Europan (Holanda, Alemania eta Erresuma Batua) duela gutxi gaixotasun horren inguruan gertatutako agerraldien egoerari buruz [2020ko azaroaren 4an argitaratutako](#) eguneratzearen ostean, MAPAk beste ohar bat argitaratu du. Ohar horretan, Espainian birusa sartzearen arriskua aztertu du. Honako hauek dira ondorioak:

1. **Arriskua handia da APA/2442/2006 Aginduaren II. eranskinean arrisku bereziko eremu gisa sartutako udalerrietan.**
2. **Arriskua ertaina da agindu horren II. eranskinean zaintza bereziko eremu gisa sartutako udalerrietan.**

Eta, ondorioz, MAPAk uste du beharrezkoa dela hainbat neurri espezifiko hartzea [APA/2442/2006 Agindua](#)ren II. eta III. eranskinetan zehaztutako udalerrietan. Honako hauek dira neurrien helburuak:

- **Biosegurtasuna sendotzea:** kontaktu zuzena edo zeharkakoa ekiditea kortako hegaztien eta hegazti basati migratzaileen artean.
- **Zaintza pasiboa sendotzea**, bai hegazti-ustiategietan, bai hegazti basatiei dagokienez.
- Eranskinetan sartutako udalerrietako **hegazti-ustiategiei buruzko datuak eguneratzea.**
- **Aldian-aldian kontrol sanitarioak eta analisiak egitea** arrisku-ebaluazioaren arabera.
- **Debekatzea kortako hegaztiak egotea animaliak biltzen diren zentroetan.**

Autonomia mailan, **Arabakoak dira** agindu horretako II. eta III; eranskinetan **arrisku bereziko** eremu gisa sartu diren **udalerrak**. Hauek dira:

- **Arratzua-Ubarrundia**
- **Barrundia**
- **Elburgo/Burgelu**
- **Legutio**
- **Zigoitia**

Aginduak, **halaber**, Araban hegazti-gripea sartzeko arrisku bereziko eremutzat hartzen ditu hezegune hauek (nahiz eta ez duen neurri espezifikorik ezarri): **Salburuako baltsak, Zadorra urtegia eta Santa Engrazia urtegia**. Azkenik, aintzat hartuta **hegazti horien migrazio-bideak gure lurraldetik oso hurbil daudela, oso-oso garrantzitsua da azpimarratzea puntu hauek sendotu egin behar direla:**

- Susmo guztiak berehala jakinaraztea administrazio eskudunari (foru-aldundiak).
- Hegazti basatiekiko kontaktu zuzena eta zeharkakoa saihestea.
- Zaintza pasiboa, hegazti-ustiategietan eta hegazti basatiei dagokienez.
- Abeltzainak, ustiategietako albatariak, ehiztariak eta, oro har, herritar guztiak sentsibilizatzea oso patogenoa den hegazti-gripeari, horren aurkako neurriei, eta hegazti gaixo edo hilen berri emateko mekanismoei buruz.

BEE-EETei buruzko 2020ko txostena

EFSaren zientzia-sarea arduratu da BEE-EETei buruzko azterlana egiteaz, eta 2020/10/08an argitaratu zuen gaixotasun horri buruzko urteko txostena.

Duela gutxi (urriak 5 eta 6) egin den 15. bilkurak aukera eman zuen zientzia-informazioa trukatzeko. Halaber, azterketa-sare hori, OIE eta EE EETei buruz egiten ari diren jarduerak aurkeztu ziren. EBko herrialde hautagaiek EETekin lotutako euren jarduerak aurkeztu zituzten.

Besteak beste, honako gai hauek jorratu zituzten:

- EETak Albanian, Bosnia- Herzegovinan, eta Turkian.
- Scrapie-a, ahuntzetan askotariko anduiak detektatu izanaren ebidentzia berria.
- CWD (oreinetan kakexia eragiten duen gaixotasuna): Norvegiako azken kasuari eta egiten ari diren azterlanei buruzko eguneratzea.
- BEE eta Scrapiearen ezohiko anduien ahalmen zoonotikoa.

Hegazti-gripearen Europako egoeraren eguneratzea

MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du, Europan (Holanda, Alemania eta Erresuma Batua) hizpide dugun gaixotasunaren agerraldi berrien egoera bildu eta eguneratzeko, oso kutsakorra eta benetan aldakorra baita. Halaber, hainbat gomendio biltzen ditu, gaixotasuna kontrolatzeko eta hegazti basatiek beren migrazio-ibilbideetan hura ekartzea prebenitzeko.

Uda honetan zehar, H5N8 azpimotako oso patogenoa den hegazti-gripearen (IAPP) zirkulazioa egiaztatu da Errusiako hegoaldean eta Kazakhstanen, etxeko hegaztietan eta hegazti basatietan.

2005-2006 eta 2016-2017 aldietan jada bizitako olatu epidemikoak aintzat hartuta, **aurreikus daiteke** birusa Europako ipar-mendebaldeko **beste eremu batzuetara hedatzeko arriskua areagotu** egingo dela. Izan ere, **hegazti migratzaileek eremu horiek zeharkatzen dituzte** negu epelagoa igarotzeko leku baten bila, eta geldialdiak egiten dituzte eremu horietan, batez ere elikatu eta atseden hartzeko.

EBko erreferentziatzeko laborategiak (EURL) **H5N8 azpimotako IAAParen** presentzia egiaztatu du **nagusiki**, eta hori bat dator uda honetan Errusian eta Kazakhstanen jakinarazitakoarekin, baina **ez da EBn 2020ko lehen erdian** zirkulatu zuenaren berdina. Halaber, egiaztatu dute bai azken hori bai detektatutako H5N1 motakoa 2016an eta 2017an Eurasian eta Afrikan detektatutako

H5N8-IAAPetatik datozela.

ADNSri, guztira, H5N8-IAAParen 28 kasu jakinarazi zaizkio, etxeko hegaztietan nahiz hegazti basatietan. Lehen jakinarazpena Holandan (2020/10/17), ondoren Alemanian (2020/10/30), eta, azkenik, Erresuma Batuan (2020/11/02).

Hegazti horien migrazio-ibilbideak gure lurraldetik gertu igarotzen dira. Hori dela eta, MAPAk gogorarazi du honako neurri hauek indartu behar direla:

- Hegazti basatiekiko kontaktu zuzena eta zeharkakoa saihestea.
- Zaintza pasiboa, hegazti-ustiategietan eta hegazti basatiei dagokienez.
- Susmo guztiak berehala jakinaraztea administrazio eskudunari (foru-aldundiak).
- Abeltzainak, ustiategietako albitariak, ehiztariak eta, oro har, herritar guztiak sentsibilizatzea oso patogenoa den hegazti-gripeari, horren aurkako neurriei, eta hegazti gaixo edo hilen berri emateko mekanismoei buruz.